



GOIERRITARRA

**Goierriin bertan
bada zer ikusia**



GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.
Zurezko egitura tratatuak

Tel: 629 46 95 26 Faxe: 943 16 10 32
Maiuz Industrialdea, 26. pab. ORDIZIA

Edozein motatako
teilatutak egiteko
prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar



AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

Aprobetxa ezazu uda hizkuntzak ikasteko

Oxford 96ko uztaila



Nick's
ENGLISH CENTRE

*Zenbat aldiz pentsatu
duzu zure ingelera hobetu
behar duzula?*

Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1

☎ 943880083 - 943160051

E-mail: nick@facilnet.es

ORDIZIA

- **INGALATERRAN EGONALDIAK**
gazte, au pair eta helduentzat
- Taldeka edo bakarka
- Kontsultatu inongo konpromezurik gabe

INGLESA

FRANTSESA

**ACADEMIA
WYSS**
IDIOMAS

ALEMANIERA

EUSKERA

● **UDAN**, herrian gelditu eta hizkuntza bat ikasi edo hobetu nahi dutenentzat **IKASTARO TRINKOAK**.

● Hemendik aurrera, **ALEMANIERA BEASAINEN** ere ikasteko aukera.

● Eta uda arte itxoin nahi ez baduzu, **APIRILEAN HASIKO DIREN IKASTAROAK** aukera ditzakezu.

URDANETA, 29-Behea-Tel. 943 16 16 46- ORDIZIA

interlang

International Language Services



Ingeles eta aleman ikastaro trinkoak udarako



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorerkin



Izulpengintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian:
Irakaslegoa eta begiraleak U.S.A.-n;
ostalaritza eta abar



The Clover School of Languages



Udan ere zure frantsesa edo ingelera beharretan laguntzeko gaituzu. Gainera:

- Abendurako 'Cambridge' azterketetarako prestakutza.
- Ingelera eta hipikako udalekuak.
- Ingelera ikasi jolastuz.

Domingo Unanue Plaza, 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Kolon, 5 ☎ 943 27 81 61 DONOSTIA	J.M. Iturrioz, 11 - 1. ☎ 943 16 05 72 BEASAIN	Elkano, 8 - 1. ☎ 943 88 11 37 ORDIZIA	Iparragirre, 8 - 1. ☎ 943 72 22 23 ZUMARRAGA
--	---	---	--

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Jon Ordoñez, Joseba Etzezarreta,
Eduarne Albizu, Agurtzane Biku-
ña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxa-
ga, Etor Mendia eta Rufino Irao-
la.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN


III. Akordeoi jaialdia martxoaren 27an Ordizian

Ordiziako Larrun Arri el-
karteak antolaturik, III.
Akordeoi jaialdi eta lehia-
keta izango da, bihar, mar-
txoak 27, gaueko 9,45etan,
Ordiziako Herri Antzo-
kian.

Akordeoi nagusi dela,
instrumentu ezberdinez
osatutako taldeei zuzendu-
tako lehiaketa da eta musi-
ka herrikoia jo beharko
dute. Launa abesti jo be-
harko ditu talde bakoitzak.
Bakoitzak nahi duen musi-
ka estiloa joko du: fox,
tex-mex, rock, folk...

Parte hartuko duten tal-
deak hauetxek dira. Bost
dira guztira. Irungo Salva-
dor Olazabal, Jose Irigoien
abeslariarekin. Berastegi-
ko Nerea Labaien, tekla-
tua, txalaparta, baxua eta
bateria instrumentuen la-

guntzaz. Lasarteko Jokin
Goenaga, bateria eta ba-
xuaren laguntzarekin.
Urruñako Philippe De Ez-
kurra, gitarra baxua eta ba-
teriarekin. Eta Arantzako
Beñat Mitxelena gitarra
baxua eta bateriaren la-
guntzarekin.

Talde guztientzat izan-
go da sariren bat edo bes-
te. Talde irabazleak
350.000 pezeta Pigni
etxeak emandako 100.000
pezetako balea jasoko di-
tu. Bigarren taldeak
150.000 pezeta eta gaine-
rakoek 50.000na pezeta.

Epaimahaia akordeoia-
ren munduan adituak diren
lagunek osatuko dute.
Akordeoiaren Gipuzkoako
Konfederazioaren babesa
izango da aurtengo jaialdi-
lehiaketak.

BOTA BERTSOA


Jon Aiestaran
(Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia)

Aste Santua

**Doinua: Hamarreko
nagusiko edozein.**

'Aste Santua' hitzak bakarrik
sarri ematen dit miña
bost egun soilik ditun astea
ez al da ziztrina
ta prozesioaz alde ederra
mintzatuko ez bagina
guztiok nola dugun kanpora
alde egiteko griña
errepidean ikusiko da
prozesiorik haundiña.

Bost egun onak izan ezker
ez du hain gutxi balio
eta udako oporrak urrun
nola dauden oraindiko
urte guztian lanean jardun
geranez nahiko serio
Aste Santuan santu itxura
ni ez behintzat horratio!
bueltan etorri beharko baina
oraingoz denoi adio.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....


Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ZERAIN

Parke Kulturala



Kalitatezko produktuen salmenta

Euskal artisautzaren erakusketa eta salmenta

Zeraingo aterpetxea

Aisialdiko ekintzak

Herri Museoa

1711.eko kartzela

Aizpeako meatzal barrutia

Larraondoko zerrategi hidraulikoa

Informazio bulegoa



Herriko plaza, z/g

ZERAIN

☎ 943 80 15 05

Faxa: 943 80 16 06

e-mail: mandio@redestb.es

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 88 73 08

TXANDAKA

Aste Santua

Aste Santua da kristau erlijioaren ardatz nagusia. Niri, berriz, Aste Santuaren bezperan egokitu *Txandaka*-rako artikulua idaztea, beraz aprobe txatu egingo dut. Azkeneko urtebete honetan, Bibliari izugarrizko astindua eman diot. Honi bai esaten zaiola tiro batekin bi txori botatzea! Hasieran, hango euskara behatu eta hari buruz gogoeta egitea nuen helburu. Hala ere, gaur ez dut zer-nolako euskara moduarekin topo egin dudana argituko. Agian, beste artikuluren batean egin nezake, geroago.


Batez ere, Itun Berrian tinkatu ditut begiak; zuzenago esanda, ebanjelioetan (pluralean, noski). Niri gustatzen zaidan bezalaxe hasten dira, zalantza planteatuz. Ebanjelio bakoitzaren sarreran garbi adierazten denez, ez dago ziur jakiterik benetako idazleak nortzuk izan diren, nahiz eta tradizioak Mateo, Markos, Lukas eta Joan direla esan. Baina zer axola dio nork idatzi zituen? Benetan aztertzea merezi duena ez da hori, zer mezu datorren baizik. Eta ez du aitzakiarik horko mezuak. Zer inporta lioke Jesukristo fikziozko pertsonaia balitz ere? Jaso dezagun mezua, eta bizi bedi gutako bakoitza mezuaren arabera. Zer ardura niri Jesukristo Jainkoa eta gizona zen ala gizona bakarrik zen? Aukeran, nahiago gizona bakarrik balitz; bestea gehiegi da nire fedeaerentzat eta ez du gizona bakarrik izanda adinako meriturik.

Beste alderdi bat ere bada ulertzen ez dudana. Salbazioaren misterioarekin erlazionatu da Jesukristoren etorrera. Horrela, sinesmenduarentzat bakarrik balio duen gida bilakatu da Ebanjelioa, eta nik uste dut edonorrentzat dela iturri aberatsa, bizimodua atontzen lagundu dezakeen erreferentzia. Gainera, zertatik eta zergatik salbatu behar du gizonak, jaiotzea beste bekaturik ez eta? Dena dela, lasai egon gaitezke, denok salbatuko baikara, baita sinesten ez dutenak ere, bestela Jesukristo frakasatu bat litzateke, eta hori da gutxien sinesten dudana.

Rufino Iraola



Parte hartzen al duzu Aste Santuko prozesioan?



Felipe Noel Rodriguez
23 urte, langilea
segurarra

Batzutan irten izan naiz, baina aurretik ez naiz aterako. Gustora ateratzen naiz, herriko gauza bat da eta gustora laguntzen dut.

Julian Arrondo
68 urte, erretiratu
segurarra

Lehen hartzen nuen parte, baina orain erretiratu nago. Prozesio ederra egiten da, eguraldi ona egiten badu behintzat, merezi du ikustea. Egun handiak izaten dira.



Juliana Garaialde
78 urte, erretiratu
segurarra

Kandelak eramanez parte hartzen dut, Kristoren eta Ama Birjina Dolorretakoaren bitartean joaten gara familiakoak. Aurretik dator eta gauza ederra izaten da prozesioa.



ESTETIKA ZENTRUKO ZERBITZUAK
ILEAPAINDEGIA - SOLARIUMA
TATTOO ESTUDIOA - PIERCING -
MASAI TERAPEUTIKOAK ETA KIROL
MASAIK ESTETIZISTA: makilajeak,
depilazioak, manikura, aurpegiko
garbiketak, etb.

Kale Nagusia, 40 tarteko oina
☎ 943 88 91 44 BEASAIN

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegi
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Legazpi kalea. 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogirtartekoak

ZINEA

GOIENIZ:

Apirilak 8, 'El viento africano' laburmetraia eta 'Go now!' luzemetraia, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

Apirilak 22, 'Hombres armados', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

ORDIZIA:

'El general'. Igandea 28: 19:30 - 22:15; astelehena 29: 19:30.

'Madeline'. Igandea 28: 16:45.

BEASAIN:

'Quedate a mi lado'. Ostirala 26: 22:15; larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 19:30 - 22:15; astelehena 29: 19:30- 22:15.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Apirilak 16, Ados taldearen 'Desperrados' lana, Usurbe Antzokian, 22:15ean, Antzerki Garaiaeren barruan. Euskaraz.

ORDIZIA:

Martxoak 26, Maskarada taldearen 'Izarretako bitakora' antzezlan, Herri Antzokian, 22:15ean, Antzerki Garaiaeren barruan. Euskaraz.

'Go now!'

*Michael Winterbottton
(Bretainia Handia, 1995)*

Britainiar zinea puri-purian dago azken urteetan, batez ere Victoriar giroko komedia erromantikoak utzita egungo errealismo soziala jorratzen hasi diren zuzendari berriei esker. Hauetako bat dugu Michael Winterbottton eta bere lehen lan luzean egoera gogor bat ertratatzan du, esklerosi multiple izeneko gaitzean oinarrituta. Nicken bizitza bat-batean aldatu da eta lagun nahiz senideekin harremanak egiteko modu berria ikastea ez da batere erraza. Izan ere, eguneroko oinarritzko ekintzak burutzeko ezintasunak izugarritzko eragina du bere izatean. Hala ere, errukia eta bigunkeria negartia uxatzen du filmeak, dramatizazio komediara etengabe salto eginez.

Martxoak 27, Ordiziako Urrup antzerki taldearen emanaldia. Hiru esketx aurkeztuko dituzte: 'Ultimar detalles', 'De bureo' eta 'Erotic stress'. Zaharren egoitzan, 18:00etan.

BERTSOAK

GABIRIA:

Martxoak 26, bertso-afaria, A. Sarriegi, G. Ojanguren eta B. Lizaso, Osinalde elkartean, 20:30ean.

ATAUN:

Martxoak 27, bertso-afaria, U. Egaña, X. Narbarte eta B. Lizaso, Aizkoate elkarte-an, 20:30ean.

MUSIKA

BEASAIN:

Martxoak 26, The Lonerros taldea, 23:30ean, Zinema tabernan.

Martxoak 27, Bide Hertzian, Amparanoia eta Urtz taldeen kontzertua, Antzizar kiroldegian, 23:00etan, Uda-berri Gaztearen barruan. Dohainik.

Martxoak 28, Musika Eskolako eta Loinatz abesbatzen kontzertuak, Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean, Parrokian, 20:00etan.

Apirilak 16, Garbiñe Insausti kantautorea, Zinema tabernan, 23:30ean.

ITSASONDO:

Martxoak 28, txistu kontzertua, 12:30ean, Goiko plazan.

ORDIZIA:

Martxoak 26, Musika sakroen kontzertua, Gerardo Rifonen eskutik, Eliza Nagusian, 20:00etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Martxoak 26, 'Anorexia, bulimia eta edergintza' gaiari buruzko hitzaldia Euskadiko anorexia eta bulimiako elkargintzako kide bat eta Ana Kristina Olano, Siboney edergintzako, 19:30ean, Udal Euskaltegian.

IKASTAROKAK

BEASAIN

Apirilaren 10ean hasita, apirilko larunbatetan, 12:30ean, 'Facil liberacion del estres' ikastaroa Asmubeko Oriamendi kaleko egoitza berrian.

Apirilaren 13an hasita, maiatzaren 11ra arte, asteartero, 19:00etan, gozogintza ikastaroa. Antolatzailea: Asmube.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Apirilaren 1etik 30era, Edurne Maritxalarren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Apirilean zehar, 'Euskal musika' erakusketa Zinema tabernan. 1960. eta 1972. urteen arteko euskal singleen azalak erakusgai.

Apirilaren 16tik 25era, Maider Urretabizkaiaeren pinturak Usurbe Antzokian.

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordue eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ORDIZIA:

Martxoaren 26tik 23ra,
Joxemari Telleria segurarra-
ren pintura erakusketa Barre-
nan.

IKUSENTZUNEOAK

BEASAIN:

Apirilak 12, Felipe Uriar-
teren 'Alegiazko herrialde
bat' diapositiba bilduma,
15:00etan, Udaletxeko Batzar
Aretoan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 28, Txurruku
puntara.

Apirilak 11, Irimo-Gorla-
ra.

Apirilak 17, Etxepare-Li-
zarrustira.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia)
943882934.

Martxoak 27-28: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain)
943880232.

Apirilak 3-4: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia)
943882628.

Apirilak 10-11: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain)
943880152.

Apirilak 17-18: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia)
943882934.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

□ Txakurkumeak opari-
tzen dira, boxer eta pastor
belga arteko kruzekoak. Ju-
len. 943 672909.

□ 1,20 metroko bi koltxoi
eta somier berri salgai. 943
882156.

□ Cocker Spaniel ingelesa
eskaintzen da arraza hobe-
tzeko. Pedigree onekoa.
943 886264.

□ Eskusoinuak konpon-
tzen dira, marka eta modelo
guztiak. 943 470001. Arra-
tsaldeko 5etatik 7etara dei-
tu, ostegunetan izan ezik.

□ Opel Omega CD, SS-X,
kotxea salgai. Urdin metali-
zatua. Kristal jasogailu
elektrikoa. Itxiera zentrali-
zatua. ABS. 4 atekoa. Ga-
solina, superra, berunik ga-
bea. Kaseta opari. 575.000
pezetan. 943 161072. Jesus
Mari.

□ Motorra salgai: Meca-
tecno. 49 cc. Jon. 943
690721. Iluntzetan deitu.

□ Bi urteko zaldi bat ero-
siko genuke. 943-806319.

□ Seat 124 salgai. Urrez-
ko aukera. 40.000 pezetan.
943-465724. Jabier.

□ Kotxea salgai: Lancia
Delta. 9 urte. Kolore zuria.
Kristal-jasogailu elektri-
koa. Itxiera zentralizatua. 5
ate. Gasolina: superra, be-
runik gabea. Kaseta opari.
Prezioa: 300.000 pezeta.
943 889052.

□ Bebe Confort ume-eser-
leku tolesgarria salgai.
Aterkiduna. Ia berria.
17.000 pezeta. Mahaian jar
daitekeen jateko aulkia
opari. 943-889052 - 630-
848327.

□ Bebe Confort ume-aul-
kia salgai. Urdin iluna eta
barra kromatuak. Berria.
Aulki bererako bi zaku opa-
ri. 35.000. Egurdietan eta
gauean. 943-889052 - 630-
848327.

□ Trialeko Gas-Gast mo-
torra salgai. 93. urtekoa.
285.000 pezeta. 943-
654154.

□ Estetikako aparagailuak
salgai. 943-885513. Arra-
tsaldez edo gaez deitu.

Lana:

□ Neska euskalduna behar
da tabernan lan egiteko.
943 160471.

□ Trikitixa talde batek ba-
jista bat behar du. Pertsona
arduratsua. Interesatuak
deitu telefono hauetako ba-
tera: 943 180408 edo 943
180334 (arratsaldez).

□ Ikaztegiatako herriko
ostatu-taberna ustiatzeko
lagunen bila dabil bertako
Udala. Baldintzak eta gai-
nerakoak elkarren adosta-
sunez finkatzeko jarrera
irekia du Udalak. 943
653329.

**IKASTEK
AKADEMIA**

Hezkuntzako profesionalak
goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5
BEASAIN

Unibertsitate maila:

- ✓ Ingeniaritza Teknikoa
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Kimika

Langileentzat:

- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak
- ✓ Fakturazioa...

Oposaketen prestaketa:

- ✓ Nola landu
- ✓ Test-ak
- ✓ Psikoteknikoa

Hautoprobetako azterketak:

- ✓ Eskola graduatua
- ✓ lanbide heziketa
- ✓ Selektibitatea
- ✓ 25 urtetik gorakoentzat

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Zaindu dezagun errepidea!

Jarraian sinatzen dugunak Oiangu inguruko eta Lazkaomendira bideko hainbat baserritan bizi garen bizilagunak gara. Jakin dezazuela guztiok, gure etxeetara iristeko Ordiziako Okorro kaltetik gora doan errepidea erabiltzen dugula askotan. Behin baino gehiagotan kezatu izan gara errepide honen Ordiziako udaletxetik jasotzen duen zaintze faltatik eta oraingoan berriro ere beraiegana jotzea erabaki genuen.

Aipatu behar da, baita ere, errepide hau ez dugula bizilagunok bakarrik erabiltzen, Ordiziako Udalak hainbestetan aipatzen duen Oianguren Parkerako sarbidedariko bat baita hau ere. Beraz, urtean zehar zenbat kotxe pasatzen diren bertatik esan beharrik ere ez dago. Hau dela eta, eskaera hauek egin genizkion Udalariri:

1.- Maiztasun batekin bide bazterreko sasiak moztu ditzatela, askotan bizilagunok aritu behar izan baitugu horretan. Era berean, baita ur bideak garbitu ere.

2.- Zorua berriztatu ditzatela, askotan, euria egiten duenean batez ere, labainkorra geratzen baita. Hau dela eta makina bat istripu gertatu izan dira errepide honetan.

Eskaeraok udaletxean sartu eta erantzuna berehalakoa izan zen. Otsailaren 3an Obra eta Hirigintza Delegazioa bildu eta guk eskatutakoa ez egitea erabakitzen du. Arrazoiak, oraingoz beharrezkotzat ez dutelako jotzen eta Udalari lepora dakiokeenik ere ez dutelako uste.

Ez da lehenengo aldia honelako eskaeraren bat egiten duguna eta erantzuna beti berdina izan da. Azkenik, bizilagunok garbitu behar izan ditugu askotan bide bazterrok. Zorua konpontzen ez gara hasiko, ordea eta lan hori Udalari dago-kionaren ustetan gaude. Hau dela eta gure eskutitzkexa honen zergatia. Oianguren Parkean hainbesteko dirutza gastatu eta orain errepide arriskutsu batetik gora bidali nahi dituzte eguna pasatzera etortzen diren kanpotarrak? Euria egiten duen bakoitzean beldurrez

ibili behar ote dugu errepide honetan?

Oiangu inguruko eta Lazkaomendiko hainbat bizilagun kaltetu (Ordizia)

Hau guztia aldatzera goaz!

Azken denboretan ekonomia ongi doala besterik ez dugu entzuten, eta egia izango da, gazteen bizkar aberasten ari direnentzat inoiz baino hobeto doa.

Gazteok, berriz, inoiz baino egoera sozioekonomiko kaxkarragoa pairatzen ari gara: langabezi tasa izugarriak, 25 urterarte ikasketak amaigabeak burutzen langabezia amaitzeko, lan munduko prekaritate osoa "aprendizaje" kontratuak, zabor kontratuak, E.T.T.en bidezko kontratazio lotsagarriak...

Egoera laboral honi, etxebizitzaren prezio ezingaraiagoak gehitzen badizkigu, 30 urterarte gurasoen etxean bizitzeko kondena daukagu, behar-beharrez-

koa dugun independentzia pertsonaletik ezin urrutirago aurkitzen garelarik.

Egoera honek guztiak arduradun zehatzak ditu, izen eta abizenak dituzten arduradunak: bankari guztiak, enpresari asko eta asko, E.T.T.aren jabe den zure bizilaguna, etxe azpiko inbiliararen jabea...

Egoera larri hau gazte guztion arazorik larriena delako, denon esku dago abian den gazte errebolta honetan parte hartzea, zeren eta indarrak bilduz eta arduradun konkretuei presio sozial eraginkorra eginaz gazteon bizibaldintzak duinduko ditugu.

Gure eskubideak baitira lanpostu duin bat eta etxebizitzarako aukera, Dagokiguna geureganatu.

Goierriko Jarrai

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-AK eta abar
× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

ERREZETA



Edurne Urbizu
Mandioa
Zerain

ARANAK LABEAN

Osagaiak: kilo 1 aran gorri, litro 1 ardo beltz, 100 gr. azukre, kanel txotx 1 eta limoi azala.

Osagai guztiak ontzi batean jarri eta labeaz sartu. Orduerdian eduki labeaz, ez oso labe beroan.

Aranak ontzitik atera eta saltsa gutxitu. Zerbitzatzerakoan esnegain harrotu piska bat bota.



Etor Mendia
Kemen K.O.Z.

Udaberria gainean dugu eta jadanik hasiak gara txirrindulari tropelak gure errepideetan ikusten. Batzuk negu guztian zehar ikusten ditugu, eguzki edo euripean, baina gehienak udaberri aldera ekiten diote pedalak emateari.

Orokorrean jende heldua izan ohi da, urtean zehar gehiegi zaintzen ez dena eta bat-batean asteburuero bere gorputza gogor zigortzen duena. Batzuentzat urteroko dinamika berdina mantentzea suposatzen du honek, baina kasu askotan 40 urteko adin mugaren "krisialdiarekin" koinzidituz hasten da jendea kirola egiten kirolari buruzko ezagupen handirik gabe. Eta hauen-tzat dira dira hain zuzen ere ondorengo aholkuak:

AHOLKUA

Neguan atseden... eta udaberriari zer?

- Txirrindu irteeren aurretik eta ondoren luzaketak egin.
- Irteera laburrak eginez hasi, ordu bete - orduterdi ingurukoak.
- Desarroilo bigunak erabili, pedalak arintasunez mugituz gihar eta giltzadurak ez behartze arren.
- Entrenamendu erritmoa ez du desplazamendu abiadurak definitu behar, bihotzaren erritmoak baizik.
- Haserako irteera guztiak ordekan burutuko dira eta porturik ez da igoko 500km inguru egin arte.
- Haserako irteeratan beti erritmo lasai eta jarraia mantentzen saiatu, erritmo aldaketa edo tirorik eman gabe.
- Tropelean irtenez gero maila berdintsuko jendearekin ateratzen saiatu, inoiz ez prestakuntza maila altuagoko jendearekin. Bakarrik irtenez gero norberaren erritmoa errespetatu eta ez inoren gurrupilik hartu aurreratutako izatean.
- Edozein iharduera fisiko burutu aurretik egin beharreko azterketa fisiko eta esfortzu frogaren frogak.

- Helburua zikloturista frogetan parte hartu eta denbora hobetzea denean prestatzaile batengana jo beti: emaitza hobekak lortzen dira esfortzu gutxiagorekin. Helburua osasuntsu mantentzea denean ere gomen-dagarria da iharduera kontrolpean burutzea.
- Irteera luzeak egiten direnean ez ahaztu elikagai eta likido proposak eramatea.
- Eguraldiaren arabera beharrezkoa den erropa eraman soilik (euritako bat beti bada ez-padan): gehiegizko erropa eramateak ez du argaltzen, galdutako izerdiak gorputzarentzako beharrezkoak diren sustantziak izaten ditu eta izerdia galtzarekin batera errendimendua jeisten da.

Nahikoa izango da oinarrizko arau sinple hauek errespetatu eta jarraitzea burutu beharreko iharduera onuragarria eta ez kaltegarria gerta dakiguen. Garrantzitsuen pixkanaka hasi eta erregulartasun bat mantentzen saiatzea da, lehiakortasuna alde batera utzi eta kirola atseginez egin.

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37

ORDIZIA

oreka

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

Rosen (PSE-EE)**aurkako eraso**

Martxoaren 12ko gauean, Juan Manuel Ros Ordiziako PSE-EEko zinegotzi bakarraren bulegoaren parean, etxean egindako lehergailu txiki batek eztanda egin zuen. Bi butano bonbonaz egindako lehergailua jarri zuten eta bulegoko atean eta ondoko atarian kalteak eragin zituen. Ordiziako Udalak ezohiko udalbatza egin zuen eraso salatzeke. HB eta PPeko zinegotziak ez ziren udalbatzara azaldu.

Martxoaren 15ean, bilkura ixila izan zen Ordiziako Enparantza Nagusian, eraso salatzeke. 'Ordizian pakea behar dugu' pankarta udaleko zinegotziek eutsi zuten eta hainbat herritarren artean, alderdi sozialistako hainbat buruzagi izan zen. Besteak beste, Jesus Egiguren, Manuel Huertas eta Guillermo Etxenike. Urtarrilean beste eraso bat jaso zuen Rosen lan bulegoak.

Karlos Saez de Egilaz

Martxoaren 17an Karlos Saez de Egilazen Beasaingo etxea miatu zuen Guardia Zibilak, Espainiako Entzutegi Nazionalaren aginduz. Saez de Egilaz atxilotzeko agindua zuen Guardia Zibilak baina HBko kidea ez zegoen etxean. Zenbait gauza eraman omen zituzten.

Kandido Sagarzazu

Martxoaren 10ean Kandido Sagarzazu atxilotu zuen Po-

**Zeraingo jardunaldiak**

Martxoaren 22an hasi eta 24an bukatu ziren Zeraingo 'Ondare eta Turismoaren Garrantzia Landa Garapenean' izeneko nazioarteko jardunaldiak. 80 bat aditu eta gonbidatu bildu ziren bertan 3 egunez. Inaugurazio ekitaldian, Mari Karmen Garmendia EAEko Kultura Sailburuak hartu zuen parte.

lizia Nazionalak Itsasondan, ustez ETAko Donostiako komandoaren laguntzailea delakoan. Kartzelan sartu zuen martxoaren 13an.

EA-EAJ

Lazkaon eta Ordizian, EAK eta EAJk, ekainaren 13ko udal hauteskundeetan zerrenda bateratuak aurkeztuko dituzte.

Aberri Eguna

Lizarrako Hitzarmena sinatu zuten alderdi abertzaleek deituta, herri bakoitzean Aberri Egunean, apirilaren 4an, hainbat ekitaldi izango dira. Herri bakoitzean ekitaldiak zehaztuko dira.

Goierriko Jarrai

Martxoaren 27an, arratsaldeko 3tan Ataundik abiatuta, Goierri bizikleta martxa

izango da Goierriko Jarrai antolatuta. Ordizian amaituko da martxa, 19:30ean, ekitaldi politiko eta manifestazioarekin. 20. urteurrena ospatzen ari da Jarrai.

Kalitate-ziurtagiria

Beasaingo Instalaciones Txindoki enpresak K-21 kalitate-ziurtagiria jaso du Enpresen Kalitatearen Garapenerako Elkartearen eskutik. Gipuzkoako 8 enpresa txikik jaso dute ziurtagiri hau.

Josetxo Marin -**Otaño zapata denda**

Gipuzkoako Merkataritzako Federazioak 50 urte bete dituzten Gipuzkoako dendak saritzen ditu urtero. Aurten Ordiziako bi dendek jaso dute saria: Josetxo Marin argazki dendak eta Otaño zapata dendak.

Martin Ibarbia

Beasaingo Martin Ibarbia Euskal Filmotekako lehen-dakari berria da. 1989tik 1995era bitartean ere lan horretan aritu zen Ibarbia.

Irati Goikoetxea

Euskaltzaindiak eta BBBk antolatutako Azkue literatur sarietan Irati Goikoetxea beasaindarra, 14-18 urte bitartekoen artean, olerki modalitatean, saritua izan da, 'Soberakinekin jolasean' lanarekin. Martxoaren 12an egin zen sari-banaketa. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak adierazi zuenez, aipagarria da lan ugaritasuna (492 ale) eta obrek erakutsi duten kalitate ona.

Artzain eguna


Apirilaren 7an azoka berezia izango da Ordizian. Latxa arrazako aharien erakusketa, ardien enkantea, gaztagintza, ardien ile moztea, arku-me dastaketa, Idiazabal gazta berriaren ebakitze ofiziala eta aurkezpena, Goierriko artisau produktuak... izango dira ikusgai.

Arakistain

Beasaingo futbol taldeak entrenatzaile berria dauka: Jose Maria Arakistain. Manuel Diaz 'Navarro' ordezkatu du Arakistainek.

Josetxo Imaz

Beasaingo korrikalari beterranoak urrezko domina lortu zuen Espainiako txapelketetan, 400 metrotan.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

Mikel Saez de Urabainek neguko igoera bikaina Himalayan

Mikel Saez de Urabain mendizale ordiziarrek balentria berria egin du Himalaya aldean. 1.400 metrotako elur eta izotzezko pareta eskalatu du, Kusum Kanguru 6.367 metroko mendian. Baina kirol honetan maiz gertatzen den bezala, 8.000 metroz gorako mendirik igo ez duenez, ez du oihartzun handirik izan.

Urtarrilaren 23an abiatu ziren Nepal Aldera, Mikel, Carlos Viera oñatiarra eta Alfonso Vizan madrildarra. Beraien asmo nagusia izotzezko pareta bat igotzea zen. Horretarako Kwangde mendian (6.187 m) 1982an irekitako bide bat aukeratu zuten. Baina, bertaratzean ezusteko eragozpena topatu zuten, mendia izotzik gabe baitzegoen.

Hurrengo saioa ondoan dagoen Teng Kangpoche mendian egin zuten. 6.500 metro inguruko tontor honek duen 2.300 metroko pareta gairatu nahi zuten. Oso pisu gutxirekin eta ahal zen azkarrena saiatu ziren igotzen. Bidearen erdia eginda zutenean irtenune arriskutsu bat topatu zuten eta eguraldia ere ez zen batere ziurra. Hau ikusirik eta mendia arriskua kontutan hartuta beherako bidea hartzea erabaki zuten.

Ettxera esku hutsik itzultzeko inongo asmorik ez zutenez, pareta erakargarri baten bila hasi ziren. Bidean ikusi zuten Kusum Kanguruko iparraldeko elur eta izotzezko pareta hartu zuten 3. helburutzat. Honela otsailaren 14ko goizeko ordubietan, oinarritzko kanpamendua utzi eta mendira igotzeari ekin zioten. Eguraldi ona lagun, eta 30 ordu etengabe eskalatu ondoren, otsailaren 15eko goizeko 8etan iritsi ziren gailurrera. Azpian ziren 1.400 metrotako izotzezko pareta. Beste 13 ordu eta 16 rapel behar izan zituzten oinarritzko kanpamendura iristeko. Viera oñatiarrak oinetan izan zituen izozketak izan ziren igoeraren zoriona lausotu zuen gertaera bakarra.

Korrikak Etxenikeri omenaldia Ordizian

Martxoaren 24an Goierri zeharkatu zuen 11. Korrikak. Jende ugari hartu zuen parte herriz herri. Ordizian ekitaldi berezia izan zen. Aurtan Korrikak omentzen dituen 11 lagunetariko bat, Pedro Migel Etxenike zientzie-

larik nafarra, omendu zuten Ordiziako plazan. Korrika egin zuen Etxenikek eta 40 bat zientzilariren omena ere jaso zuen. Guztiek elkarrekin Oiangun bazkaria egin zuten.

Igandean, martxoaren 28an, bukatuko da Korrika Donostian eta bertara joate-



Segura Irratia, 24 orduz

Martxoaren 9az geroztik, Segura Irratiak 24 orduz eskaintzen du bere emanaldia. FMko 89,2 frekuentzia entzuten den Segurako Irratiak ohiko irratsaioak ditu eta gauerdiko 12etatik goizeko 8ak arte, musika eskaintzen du. 24 orduan bere emanaldia eskaintzen ez zuen irrati bakarrenetarikoa zen Segurakoa.

ko autobusak antolatu dituzte AEK-koek. Ohiko lekue-tan daude salgai txartelak eta informazio gehiago, Beasaingo AEK-ko euskalte-gian izango duzue: 943-889340.

Korrika batzordearen eskerrak

Goierriko Korrika batzorde-ek eskerrak eman dituzte le-rrro hauetatik, martxoaren 19an Beasainen izan zen Korrika afarian era batera edo bestera lagundu zuten guztiei. Goierriko elkarten artean egiten den arrain zopa eta erredondo lehiaketan 14 elkartek hartu zuten parte: Beasaingo Intxaurrondo, Arrano, Beti-Bizi eta Aitz-Zorrotz; Idiazabalgo Axari; Ormaiztegiko Barduliarrak; Segurako Elorri; Lazkaoko

Dormarda, Gerriko eta Esparru; eta Ordiziako, Azari, Argi-Berri eta Irriki. Arrain zopa lehiaketa Arriarango Intxaurrondo elkarteak irabazi zuen eta erredondo lehiaketa, Idiazabalgo Axarrik. Jokin Telleria Beasaingo margolariak egindako oroi-garriak jaso zituzten saritzat. Afarirako edariak Telleria, Arrano, Resti, B.M., Ugalde eta Ostatuk eman zituzten. Ogia Gariona, Goiagi eta Pagosa okindegiek. Eta postreko ijito besoa, Julki, Unanue eta Errotaundik.

Azkenik, afarian bertan parte hartu zutenak eta afaria girotu zuten Goierriko bertsolariak eta Joxemi eta Aloña kantariak eskertu nahi dituzte Korrika batzordeko-ek.

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ZALBIDE
SAGARDOTEGIA
Arraiak parrilan



☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

Urrutira joan gabe, Goierrin bertan bada Aste Santuan zer ikusia



Zerain, parke kulturala

Aste Santuko oporrak gain-gainean ditugu eta jende asko Goierritik joango bada ere, Goierrin bertan bada zer ikusia eta zertaz gozatua. Nahi duenak erlijio ospakizunak, nahi duenak historia, nahi duenak mendi-ibilaldiak... denetarik daukagu Goierrin, bertan daukaguna ezagutzeko edo kanpotik datozenei erakusteko.

Zeraina jende asko hurbiltzen da Aste Santuko egun hauetan, Seguran prozesioak izaten direla aprobetxatuz. Zeraindarrek zerbitzu, bisita eta ekintza guztiak martxan izango dituzte. Burdinaren ibilbidearen proposamena egiten dizue zeraindarrek.

Burdinaren ibilbidea

Zerain, Legazpia eta Ormaiztegi elkarlanean, Burdinaren ibilbidea dute antolaturik. Zerainen, Aizpeako meategietan, burdina nola ateratzen zen ikusteko aukera dago. Legazpiko Mirandaolan, berriz, burdinaren transformazioa. Ormaiztegin bukatzen da ibilbidea, Ormaiztegiako burdinazko zubian. Burdinaren

erabilera ikusten da bertan.

Zeraingo Aizpeako meategietan segurtasun neurriak jarrita dituzte, Europako Reveil proiektuaren diru-laguntzari esker. Adituen esanetan, burdinaren prozesu guztia leku edo meategi berean biltzen duen gune bakarra da Euskal Herrian. Minerala atera, garraiatu, kaltzinatu, eta bilketa eta bidalketa sistemak ikus daitezke Aizpean.

XI. mendekoak dira burdin produkzioaren lehenengo arrastoak. 1512. urtean Fernando errege katolikoak Aretxabaletako Otalora familiari eman zizkion Zeraingo meategiak. Jarduerarik handiena dena den, XIX. mendean izan zuen. 1856an 10.000 kintal metriko mea produzitu ziren. Konpainia ingelesaren esku ere egon zen Aizpeako meategia. Azkeneko ahalegina, Legazpiko Patricio Etxeberria enpresak egin zuen, 50.eneko hamarkadan.

Bisitaldi gidatuan, Zerainen, minerala ateratzeko guneak, azalekoak zein galerietakoak, minerala garraiatzen zuen trenaren plataforma, kiskaltzeko labeak, administratzailearen etxea eta minerala Ormaiztegiako tren geltokira garraiatzeko aireko kablearen

hastapeneko lekuak ikus daitezke.

Ibilbideak Legazpin eta Ormaiztegin jarraitzen du. Legazpian, Mirandaolan, burdinaren transformazio prozesua ikus daiteke, eta Ormaiztegin azkenik, burdinaren erabileraren adibide bat.

Zerbitzu guztiak irekita

Informazio gunea, Mandioa, egunero egongo da irekita, goizean, 11etatik 2etara eta arratsaldean 4etatik 7etara. Museo etnografikoa eta Eliza ere ordutegi berean egongo dira ikusteko aukeran. XVI. mendeko San Blas ermita egun osoan egongo da irekita eta 1711ko kartzela, Ostatu tabernan dagoenez, bertan eskatu behar da giltza.

Zerrategira eta meategira bisita gidatuak izango dira. Momentuz, egunean bisitaldi bana izango da, Mandiotik abiatuta. XIX. mendean eraikitako Larraondoko zerrategi hidraulikora joateko, 12etan eta 4,30etan abiatuko dira ibilaldiak eta Aizpegiako meategira joateko, ordu batean eta 5,30etan. Bisitaldi gidatu hauetan parte hartu nahi duenak, Informazio gunera jo behar du. Harremanetarako telefonoa: 943 801505.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



Ormaiztegi

Apirilaren 3an Larunbat Santuan, ohiko ordutegian, irekita egongo da Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa. Goizean, 10etatik 14etara eta arratsaldetan 15:30etik 18:30era.



Zumalakarregi museokoek aurreratu digutenez, eraberritzen ari dira museoaren bigarren solairua. Irudi, grabatu eta dokumentazio original, uniforme, arma... gehiago eskuratu dituzte. Panel berezi batzuk ere jarri dituzte gerraren beste aldea agertzen dituztenak. Gaur egun Zumalakarregiren irudiari zein erabilpen ezberdin eman izan zaion biltzen duen atala ere jarri dute. Azkenik, II. Karlistadari tarte handiagoa eskainiko diote hemendik aurrera. Informazio zehatzagoa aurrerago izango dugu. Burdinezko zubia bisitatzeko aukera ere izango da apirilaren 3an Ormaiztegin.

Ekitur

Goierriko ibilaldi gidatuak

Ekiturren eskutik antolatutako hainbat ibilbide gidatuak egiteko aukera ere izango da Aste Santuan. Erdi Aroko hiribilduei bisita; Idiazabalgo Gaztaren ibilbidea; nekazal munduari bisita; Santiagoko bidea; uraren ibilbidea; Zumalakarregi General Karlistaren jatorri eta bizitza; eta bailara guztian zehar ibilaldiak.

Edozein argibideetarako telefonoak:
Ekiturrekoa 619 464485 eta Goiekikoa 943 161823.

Segura

Seguran, Aste Santuko prozesio edo segizioen inguruan prestatu duten egitaraua haxe duzue:

Martxoak 28, Erramu Igandea:

11:45etan: Erramu bedeinkatzea eta 12:00etan Meza.

Apirilak 1, Ostegun Santua:

17:00etan: Azken afariaren elizkizuna parrokian.

Jarraian: Elizkizunaren ondoren, prozesioa.

Apirilak 2, Ostiral Santua:

8:00etan: Santa Engrazitik komentura Gurutz bidea egingo da.

16:30ean: Jesukristoren nekaldi-heriotzen elizkizuna. Kristoren irudi giltzatua gurutzetik jaistea egingo da.

Apirilak 3, Larunbat Santua:

20:00etan: Larunbat Santua Komentuan.

Apirilak 4, Pazko Igandea:

11:00etan: Piztueraren Meza Nagusia.

Egun hauen inguruan, Ostegun eta Ostiral Santu egunean, Aste Santuarekin lotutako erakusketa egongo da ikusgai Informazio bulegoan (Kultur Etxean). Goizeko 11,30etatik arratsaldeko 8etara bitartean egongo da zabalik. Ordutegi horretan bertan, Aste Santuari buruzko bideoa ere ikusteko aukera izango da. Informazio bulegoan Josune Arrondo turismo teknikaria egongo da.

Bisitaldi gidatuen bidez Segura hobeto ezagutzeko aukera izango da. Herriaren historia eta etxe garrantzitsuenak, ordu beteko bisitan, ikusiko dira. Ordutegiak oraindik ere zehazteko baldin badaude ere, Josune Arrondo turismo ardura-dunak adierazi digunez, Ostegun eta Ostiral Santuan, bina bisitaldi egingo dituzte, bata goizean eta bestea arratsaldean. Argibide gehiago Informazio bulegoan izango duzue edo Segurako udaletxean (943-801006).

SANTA BARBARA

karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 943 80 11 60

SEGURA

ELORRIPE

edaritegia

☎ 943 80 10 02

SEGURA

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak



OTATZA SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere irekita
(asteazkena zehar eguerditan enkarguz).

Zatoz probatzera!

☎ 943 80 17 57 ZERAIN

JUANKAR

- ✗ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- ✗ Parket ezartzeak

☎ 943 731945 - 639-962850
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

Inaxio Insausti: 36 urte Kurutzea bizkar gainean

Ezeren okerrik ez dela, Segurako Aizkoeta-berri baserriko Inaxio Insaustik 37 urte beteko ditu aurten Aste Santuko prozesioan Kurutzea anda eramaten. Andarik pisutsuena eta altuena da. 287 kilo ditu Kurutzeak eta 6 eramale izaten ditu aldiko, eta 9 lagunen artean txandatzten dute.

5-8 urte bitartean nazareno eta 20 bat urte bitartean penitente. Handik aurrera, urterik galdu gabe, Kurutzea andaren eramalea da Inaxio Insausti. 36 urte daramazki eta 40ra iritsi nahi du, ezkongabea izanik, ilobari lekukoa emateko. Inaxiok aitortu digunez, izugarrizko zortea izan du 36 urtean hutsik egin gabe santua eramaten ateratzeko. Santu-eramale ofizioa familiatik, belaunaldiz belaunaldi pasatzen den tradizioa da, nahiz eta Inaxioaren aurrekoak erromatar soldaduak izan ziren. Santu-eramale lanetik erretiratzten denean,



German Imaz, Joxe Manuel Etxeberria, Joxe Aldasoro, Inazio Insausti, Eustakio Mujika, Juan Mari Urbizu, Keko Maiotz, Ximon Goia eta Joxe Luis Mujika bederatzikoteak eramaten du Kurutzea Segurako Aste Santuko Prozesioan.

kandelak eramanez jarraituko omen du prozesioan parte hartuz.

Andarik handiena da Jesus gurutz iltzaturik aurkeztuen duen anda. 287 kilo pisatzen ditu. "Bakoitzari 48na kilo tokatzen zaizkio, baina kalea ez da beti berdina izaten. Batzutan 28 kilo etorriko zaizkizu, baina hurrenagokoan 80. Bolartan pisu astunarekin ibili behar izaten da".

182 zentimetroko neur-tzen ditu Inaxiok. 60 urte

beteko ditu aurten. Oraindik ere sasoikoa dago. "Baserriko mutila naiz eta arbi kargak eramaten zailduta-koa naiz. Batzuk bizkarra belztuta ibiltzen dira santu eramaten baina nik ez dut arazorik izaten". Aitortu digunez, "indarra bakarrik ez da behar, askotan mañak gehiago balio du. Urteik urtera maña gehiago hartzen joaten da eta 23 urterekin bezain ondo eramaten dut orain ere santua".

Santu-eramaleak aurpe-

gia estalita joaten dira eta horri eskerrak! "Gu aurpegia tapatuta joaten gara eta okerxeago joanda ere ez da ikusten. Aurpegirik tapatu gabe ez litzateke inor joango santu eramaten. Pisu asko etortzen zaigunean hortzak estutu, aurpegi tristetak... sufrimendu aurpegiak jartzen ditugu eta hobeto tapatuta". Beraiek aurpegia estalita joaten dia kanpokoek euren aurpegiak ez ikusteko, baina beraiek begi-zuloetatik kanpoko guztia ikusten dute. "Jendea negar egiten ikusia nago".

Ordubete inguruko jarduna izaten dute, "baina lasai-lasai ibiltzen gara. Sarde txiki bana edukitzen dugu, santua gainean jarri eta atsedena hartzeko. 9 lagunen artean eramaten dute santua. Atsedena hartzen dugunean, hirunaka txandatzten joaten gara. Aldiko 6 lagunek eramaten dugu santua". Hanka pausoak seiek batera ematen dituzte. Arduradun bat badute eta sardearekin lurra jotzen duenean, pausoa ezkerreko hankarekin eman duela adierazten duena.

Frutak & barazkiak
amatrriain

Zurbano kalea ☎ 943 80 11 77
SEGURA

IMAZ Jatetxea

◆ Eguneroko bazkariak
◆ Karta

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25

SEGURA



SEGURAKO UDALAK herritar guztiok Aste Santuko ospakizunetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte zuen betiko lan jatorra eskertuz.

Seguraz kanpoko bixitari guztioi gure ongi etorriarekin batera, aurten ere herria ezagutzeko bisita gidatua eta Aste Santuari buruzko erakusketa bat eskeintzen zaizue (Kultur Etxeko Infomazio bulegoan).

Esanahi handia

Segurar batentzat santu eramalea izateak esanahi handia dauka. Inaxioentzat Aste Santuko egun hauek izaten dira Gabonekin batera, urteko egunik berezienak. “Segurarrok barru-barruraino sartuta daukagu Aste Santua. Polita izaten da zahar eta gazte denok elkarrekin ateratzea. Oraintxe 20 bat urte prozesioak galdu egin ziren herri askotan. Guk eutsi egin genion eta tradizio handia dago. Orain dela 20 urte gazte batzuk ez zuten prozesioan atera nahi izaten baina gaur egungo gazteak gustora ateratzen dira”, esan digu Inaxiok.

Prozesioa ez omen da askorik aldatu. “Jendea serio joaten da oraindik. Kanpo-



etik jende asko etortzen da, baita lehen ere. Hori bai, lehen sermoiak luzeagoak eta gogoragoak izaten ziren. Gaurkoak alaixeagoak izaten dira. Jendeak ondo erantzuten du, bai herrikoak eta bai kanpokoek. He-

rritar gehienok hartzen dugu parte. Baina akats bat ikusten dut: emakumezkoek penitente, nazareno eta kandelak eramanez parte hartzen dute, baina santu-erabiltzen ez dut inor eza-gutu. Eta Seguran badaude santuak eramateko indarra daukaten emakumezkoak”.

Koartelaren aurrean larri

Urte hauetan guztietan bitxikeria bat baino gertatu izan zaie. Bat gogoratu digu Inaxiok, koartelaren inguruan gertatutakoa: “Seguran lehen koartela zen Erdiko kalean. Eramale bat ikargarri gaizki zihoan, bizkarrereko min handiz eta bat gaizki badoa besteak ere bai. Koartelera arrimatzen ari ginela, ezin zuzen joan eta santua oker-okerginda

iritsi ginen koartelera. Guardia Zibil bat barrura sartu zen eta besteak mosketoia gora begira jarri zuen. Batek hala esan zidan: ‘Inaxio, hori tiroz botatzera zijo!’’. ‘Lasai-lasai—esan nion—. Hori gurutzen ondo iltzatuta zegok eta. Txarra guri tiroka has-tea izango da, orduan izango dira komeriak’. Batzuk uste zuten apropos egin genuela, probokatzeko. Baina gu leher eginda gindoa-zen”.

Beste datu bat ere eman digu Inaxiok: “Santurik handiena Jesus gurutz iltzatuarena da eta sekula ez dugu ezertxo ere jo alturagatik. Argiaren kableak, telefono kableak, zuhaitz adarrak... beti libratu izan dugu justu-justu. Suerte handia daukagu edo bestela norbaiten laguntza badugu”.

AIZKOETA
taberna
Nagusia, 23 ☎ 943 80 10 04
SEGURA

ARANBURU
HARATEGIA
Nagusia, 34
☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41
SEGURA

ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
EROSLE GOIKO
● Ordiziako Gazta Txapelketako irabazlearen gazta
● Etxeko arkumeak
● Bertako haragia
Zurbano, 8 ☎ 943 80 03 26
SEGURA

 **KENDU** S. Coop. Ltda.
Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan
Industrialdea, z/g
SEGURA ☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

Nekazal lurren errenta eta salerosketarako informazio zerbitzua Goimenen eskutik

Nekazal lurren salerosketa edo errentako hartu-emanak bideratzeko zerbitzua sortu du Goimenek. Nekazal lurren eskaintzak eta eskaerak jaso eta elkarte bera arduratuko da hilero-hilero informazioa zabaltzeaz. Nekazal ikuspegitik lan egingo du eta Nekazal lurrrak berriz ere nekazarien eskutan gelditzea du helburu Goimenek.

Leku bakar batean nekazal lurren inguruko informazio guztia biltzea du helburu Goimen elkarteak. Nekazal lurra saldu, erosi, errentan hartu edo errentan eman nahi duenak Goimenera jo eta bertan izango du informazioa. Zerbitzu berria sortzearen arrazoia laburbildu digu Jose Manuel Zubizarreta, Goimenera arduradunak: "Baserriak aldatzen ari dira. Alde bateatik, baserriaren aldeko apustua egin dutenentzat baserria txiki gelditzen zaie eta errentagarri izateko ganadu kopuru handiagoa jarri beharrean daude, baina oreka mantentzeko lur gehiago behar dute; eta beste joera, baserria etxebizitza bezala mantendu, ne-



Saldu, erosi, errentan eman edo hartu nahi den lurren informazioa jaso eta zabaltzeko du Goimenek.

kazal aktibitatea utzi eta lurrrarekin zer egin ez dakitenena da. Beraz gure helburua da, saldu, erosi, errentan eman edo hartu nahi den lurren informazioa jaso eta berriz ere zabaltzea. Goierri mugatuko gara".

Baserri osoak saldu edo erosteko aukera ere ez dute baztertzen, batez ere gazteekin pentsatuz. "Baserrian hasi nahi duten gazteek nahiko zailtasun dituzte baserriak hartzeko eta neurri batean, baserriak saltzen direnean nekazal lurretan eraikuntza bat egiteko dauden zailtasunak ikusita, baserriaren balorea indartzen doa".

Azken batean informazioa erraztearekin batera, baserriak egitura berrietara egokitzen lagundu, lurraren

erabilpen egokiagoa lortu eta gazteei lurra bilatzen laguntzea nahi du Goimenek.

Nekazal ikuspegia

Nekazal ikuspegitik lan egingo dute, eta ez negozio espekulatibo bat bezala. Dohaineiko zerbitzua da. Goimen informazioa jaso eta zabaltzeaz bakarrik arduratuko da; ez du bitartekari lanik egingo. Baserriarrei zuzendutako zerbitzua da.

Nekazal lurra saldu, erosi, errentan hartu edo errentan eman nahi duenak, Goimenera jo beharko du. Harremanetarako telefonoa: 943-161244. Eskaintzen eta eskaeren berri Goimenen jasoko da eta Goimen bera arduratuko da hilero, informazioa zabaltzeaz. Hiru bide erabiliko ditu informa-

zioa zabaltzeko: Ordiziako Nekazal Bulegoko iragarrien tablatua, baserriarrei zuzenean eskutitzez eta GOIERRITARRA aldizkaria. Zerbitzu berri honen berri emateko baserriarrei eskutitz bana bidaliko zaie.

Jose Manuel Zubizarreta adierazi digunez, ahoz ahoko informazioa dago orain arte, nahiz inmobiliaria agentzik hor dauden. "Informazio hori gutxi da eta gainera oso banatua. Baserrien salmentak inmobiliarientzat badu interesa, baina lurrek askoz ere gutxiago. Gainera guk nekazal erabilpena izango duten lurren trukaketa bultzatu nahi dugu, ez espekulaziorako salerosketak".

Lur bankoa

Baserriarrak kezkatuta eta sensibilizatuta omen daude lurraz. "Azpiegitura handiekin baserriarrak lur gutxirekin gelditzen ari dira. Irtinbiderik onena lur bankoa sortzea litzateke. Hau da, lurra erosteko erakunde bat sortu, gero baserriarrei eskaintzeko. Horren beharra badago sektorean, benetan nekazaritzarako onak diren lurra benetan gordeko direla ziurtatzeko. Sortu dugun zerbitzu hau lur bankoaren oinarria izan daiteke", esan digu Zubizarreta.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

ATAUN

Atsedent-Tokik antolatuta joku txapelketak 27ra arte

Aurten ere Bote, Zapo, Toka, Seiko Urre, Tute, Eskoba eta Punttuko txapelketak antolatu ditu bere bazkide-entzat Atsedent-Toki jubilatuen elkarteak. Astean hiru egunetan, astearte, ostegun eta larunbatez jokatu dira, goiz eta arratsaldean joan den astean, arratsaldean bakarrik aste honetan. Euren abildadeak neurtu ondoren, hona hemen pasa den astean lehen hiru postuetan geratu zirenak:

Botean: Felix Eskisabel, Jexu Mari Arratibel eta Bixente Goikoetxea.

Zapoa: Patxi Agirre, Sebastian Auzmendi eta Felix Etxeberria.

Tokan: Juanito Auzmendi, Bixente Goikoetxea eta Jose Rezola.

Musean 4 erregetara: Jazinto Begiristain eta Joakin Aizpurua, Nikola Munduate eta Julian Imaz, Pilar Larrea eta Teodora Urbiztondo.

Seiko urrean: Ramona Arratibel eta Miren Goikoe-
txea, Sebastian Auzmendi eta Maria Agirre, Anastasia eta Bizente.

Tutean: Sebastian Auzmendi eta Maria Agirre, Joxepa Etxeberria eta Antonio Goikoetxea, Juan Goikoe-
txea eta Bixente Goikoe-
txea.

Aste honetan Eskoba eta Punttu txapelketak jokatu dira eta larunbat honetan, hilak 27, arratsaldeko 4etan, musean arituko dira 8 erregeetara Atsedent-Tokin.

Momentu honetan 336 bazkide ditu elkarteak eta antolatzaileen esanetan partaidetza zabala izan da aurtengoan ere. Zorionak guztioi, beraz!

Ataun Herriarteko pilota txapelketan

Pozez jaso da Ataunek Gipuzkoako Herriarteko Pilota txapelketan parte hartuko duenaren berria. Txapelketa apirilaren 25ean izango da. Hiru kategoriatan dago banatua: kadeteak, jubenilak eta seniorrak.

Kadeteetan Eñaut Sukia, Gorka Imaz eta Gorka Albisuk jokatu dute. Jubeniletan arituko dira Jon Dorronsoro eta Eusko Sukia eta larrien kategorian Zorion Barandiaran, Eneko Imaz eta Rafael Zubizarreta arituko dira pelotan.

Aurten txapelketa 'liga' moduan jokatu denez, talde bakoitzean hiru edo lau herri egongo dira, eta partidu bakoitza etxean eta kanpoan jokatu beharrekoa dela kontutan izanik, herri bakoitzak gutxienez 4 partidu jokatu ditu.



Joxe Munduate Orixen txapelketako finalerako sailkatua

Añorgan ospatu zen Orixen bertso txapelketako hirugarren eta azken kanporaketan Joxe Munduatek lehen postua lortu zuen. Horrez gain, martxoaren 28an Añorgan bertan jokatu den finalerako sailkatu zen bigarren egin zuenarekin batera.

Saio borobila izan omen zen aietarrarena. Han izan zirenek adierazi dutenez, bakarka egin zuen saioa entzuteko modukoa izan omen zen. Bigarrenari 32 puntuko aldea ateratu omen zion!

Parte hartze honek dakartzan kostu ekonomikoak ikusirik, Ataun Kirol Elkartea diru iturriak aztertzen hasi da. Oraingoan errifa ateratu dute eta zozketa egin ere bai. 2.221 zenbakia izan zen saritua eta arkumea Iñaki Rezolari suertatu zitzaion. Ia hurrengoan zorte hobea izaten dugun geuk ere!

Labur-labur

● Herrian, azken asteotan hainbat ekintza antolatu dira euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatuz. Senideak, Gestora, Jarrai eta Agautz taldeak deiturik, San Martingo plazan konzentrazio ixila egin zen martxoaren 6an; ordu laurdeneko argi itzalketa herri guztian hurrengo ostiralean, hilaren 12an.

● Joan den astean zendu zen Aian 68 urte zituen Josefa Munduate. Doluminak senitartekoei.

Aqurtzane Bikuña

IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

ORDIZIA

Euskararen aldeko Korrika

Iruñean izan zuen irteera hamaikagarren Korrikak eta datorren igandean amaituko da Donostian, tartean Euskal Herriko hainbat herri igaro ondoren. Ordiziatik asteazken eguerdian pasa zen eta esan jende ugari parte hartu zuela. Hainbat Elkartek erosi zituzten kilometroak eta ondorioz lekuko eramateko aukera izan zuten. Baina lekuko eramale ezagun bat izan zen aipatzekoa, Pedro Migel Etxenike zientzilari eta ikerlea hain zuzen. Honek, Fray Andres inguruan hartu lekuko eta Malkaskoraino eramane zuen, jendearen txalonen artean.

99ko Udal aurrekontuak

Urtealdi berriari dagozkion Udal aurrekontuak onartu berri ditu plenuak eta bertan nabarmentzekoak honakoak dira: plantilan eman diren aldaketak, udaltzain eta garbiketarako bi postu berri sortu baidira. Gainera, aldi baterako trebatzaile bat kontratatzeko asmoa ere badago aurrerago. Honek udal langileek bere eguneroko



mozketa erakustaldia ere eskainiko Arboledan.

Estali gabeko pilotalekuan, berriz, herriko elkarrekin prestatutako ardi eta arkumeak egongo dira dastagai. Gazta nola egiten den ikasi nahi duenak ere pilotalekura joan berrikerik ez du. Orain bi urte bezala, artaldeak igaroko da herriko kaleetan zehar, Aralarrera joateko asmoz. Idiazabal gaztaren denboraldi berriaren aurkezpena ere egingo da aipatu asteazkenean udaletxean.

lana euskaraz egin dezaten lagunduko du. Giza gastuak direla eta, etxeko laguntza zerbitzuaren partida handitu da, sarrera arruntentzen %1a hirugarren munduko programarentzat izango da eta %0,3a Mitch hurakanak erasotako Ertamerikako herrietara joango da.

Artzain eguna apirilaren 7an

Urtean zehar egiten diren peri bereziei hasiera artzain egunak emango dio apirilaren 7an. Ehundik gora artzain hartuko dute parte egun horretan eta punturik interesgarriena Arboledan egongo da. Bertan 200dik gora aharri izango dira ikusgai. Era berean lehiaketa ere izango da, ea nork aurkeztu duen aharirik harroena. Artzainek ile

Inbertsioei dagokienez, aldez, nabarmenenak hauek dira: Malkaskoko zubia aldatu, Idiazabal Gaztaren Museo Etxea sortzea, udaletxe ondoko Kutxaren lokalak erostea eta alde historikoa urbanizatzen jarraituko du Udalak.

Alzheimer gaixoen sendiarlekuen bilerak

Alzheimer gaixotasun degenaratiboa eta progresiboa da, garuna erasotu eta oroi-mena, pentsamendua eta portaera kaltetzen duena. Hasiera gradualak izaten du. Gauza gertatu berriak gogoratzeko edota ohizko jarduerak garatzeko zailtasunak izanik. Gaixoa senideen eskuetan geratzen da. Alzheimer sendiarlekuen Elkarrekin dago eta Ordizian, hileko 1. eta 3. asteazkenetan elkartzen dira, 16:45ean, Jubilatuen etxean, esperientziak trukatzeko.

Maskarada

Antzerki Garaia barruan Maskarada taldeak 'Izarretako bitakora' lana eskainiko du martxoaren 26an Herri Antzokian, iluntzeko 22:15ean. Antzezlanak euskaraz izango da Aurtengo egitaraua apirilaren 23an amaituko da. Orduan Miedomedá taldeak 'El sueño del pato antzezlanak aurkeztuko du, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere.

Aitor Calvillo

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 910 02 00 41
Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA
Urdaneta, 15 ☎ 943 88 82 52
ORDIZIA

Presio altuko solariuma

- Azken teknika eta nobedadeak
- Ezkontza eta ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.
- Makilajeak Manikura...

ZALDIBIA

Lanpostuak Udaletxean

Zaldibiko Udalak bi peoi-garbitzaile kontratatuko ditu hiru hilabetez, 2/3eko lanaldiarekin. Interesatuak martxoaren 29a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean.

Bestalde, etxez etxeko langile ordezkapenak (bakak, oporrak, e.a.) egiteko ere lan poltsa bat osatu nahi du Udalak. Izen emateko epea martxoaren 31n amaituko da.

Gazte abialdia

Jarrai gazte erakundeak, bere sorreraren hogeigarren urteurrena betetzen den honetan, Euskal Herria zeharkatuko duen 'Gazte Abialdia' antolatu du martxoaren 20tik apirilaren 3ra bitartean.

Zaldibiko Jarraik ibilaldi honetako azken hiru egunetako ekitaldietan parte hartzeko deialdia luzatu nahi die herritarrei, eta apirilaren 3an Anoetako belodromoan

izango den ikusentzunezko ekitaldi politikora joan ahal izateko sarrerak Joxepanen salgai daudela jakinarazten du. Ekitaldi hau haur, gazte

nahiz helduei zuzendua dela gogorarazi nahi dute halaber.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*



Egiluzko zuhaitza

Itxuraz behintzat aizkoran oso iaioa ez den norbaitek Egiluzen zegoen zuhaitz bikain eta indartsu bat ebaki du. Arkaka aldera eguneroko ibilalditxo egitera joan eta zuhaitz handi honen gerizpean atsedean hartzeko ohitura zuten herritarrek gisa honetako basatikeriak salatu nahi dituzte.



Saturdiko festa apirilaren 5ean

Goizeko 11:30etan, Meza nagusia Saturdiko Baselizan.

Mezaren ondoren, auzoko bizilagun zaharrenari opari bat emango zaio. Ekitaldian Patxi Iraola bertsolaria eta auzoko aurrekulariek hartuko dute parte.

Ondoren haurren lasterketa. Saio hau hiru mailatan izango da: benjaminak, alebinak eta infantilak.

Eguerdian, bertsolarien eta Urko eta Aitzol trikitilarien saioa.

Eguerdiko 1ean, auzotarren arteko Toka Txapelketa

Eguerdiko 2:30etan, bazkaria

Bazkalondoan bertsolarien saioa.

Arratsaldeko 5:30etan, Arria V. eta Senosiain aizkolarien saioa.

Ondoren, Urko eta Aitzol trikitilarietako erromeria.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEPALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

Argitarapen honen edizioa laguntza:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

ZEGAMA

Argazkitan, Zegamaren bilakaeraren bila

Kultur Etxeko Batzordean egin zen azken bileran Zegamak urteetan zehar egin duen aldaketa, hau da, bilakaera handia izan dela aipatu zen. Bilakaera honen lekuko diren etxe, kale eta leku esanguratsuenen argazkien bilketa egitea proposatu zen bertan. Besteak beste, lehengo pilotaleku irekia, ikastola, eskolak, zerrategia, Jauregira zihoan errekatxoa, hiltegia, zirkulua, buztinkale soro zenekoa, emakumeek lixiba jotzen zuten tokiak, dendak, edaritegiak, mendiak pinurik gabe, baserri zaharrak, jazkera desberdinak, ohitura desberdinak erakusten dituen argazkiak eta abar dira interesatzen diren argazkiak.

Argazkia, nahi izanez gero, Udaletxean utz dezakezue (Edurneri eman) kopiak ateratzeko, eta bestela norberak atera beza kopia eta Kultur Etxeak ordainduko dio kostua faktura baten bidez. Argazki mordoxka bat lortuz gero erakusketa bat egitea izango litzateke helburua eta baita alburu batean

Zegamaren bilakaera jasotzea ere.

'Euskara eguna' Aitxurin

Joan den astean 'Euskara eguna' aitzakitzat hartuta, zenbait ekintza ospatu ziren Aitxuri Herri Eskolan. Astelehenean, Kultur Etxea laguntzaile izanik, Itziar Zubizarreta ipuin kontalariak, 8 urte bitarteko haurrei makinan bat ipuin kontatu zien haurren arreta osoa bereganatuz. Asteartean, martxoak 16, zahartxeagoek izan zuten aukera eta 8 eta 12 urte bitartekoek Juan Martin Elexpurrekin solasean aritu eta bere obrataz zenbait informazio jaso zuten. Iluntzean, Guraso Elkarteak antolatuta, hitzaldia izan zen herri guztiari irekia. Gaia: 'Disciplina. Establecer límites en la conducta del niño'. Interresgarria gertatu zen eta aipagarria da jendearen parte-hartzea.

Asteazken arratsaldean, L.H.ko 2. eta 3. zikloko ikasleek, bertso eta antzerki saio banatan beraien abile-



ziak erakutsi zituzten. Bertaratu zirenek majo gozatzeko aukera izan zuten. Ostegunean, berriz, H.H.ko eta L.H.ko 1. zikloko ikasleak izan ziren protagonista eta dantzak eta antzerkia eskaini zituzten.

Aste hau bukatu ondoren, euskararekin jarraituz, martxoaren 24an, Seguran Korrikarekin bat egin zuten.

Imersoko oporraldiak

Adinekoentzako Oporraldi Programa zabaldu du Imersok. 1999-2000. urteko kanpainan parte hartu ahal izateko, Udaletxeko Gizarte Zerbitzuan, apirilak 15 baino lehen, astelehenetan eta asteartetan, 9:00etatik 14:00etara egin behar dira eskaerak.

Edurne Albizu

EZKIO-ITSASO

Kultur sustapena Ezkio-Itsason

Joan zen otsailaren 28an martxan jarri zen ofizialki herriko 'Yartu' kultur elkarte. Hainbat pertsonen lanaren ondorioz, azkenik argia ikusi du orain dela hilabete batzuk bideratzen hasi zen proiektu honek.

Otsailaren 28ko bileran, estatutuak onartu eta zuzendaritza batzordea izendatu ziren. Bilera honetan, elkarreko lehendakaria izendatua izan zen Joxe Etxeberriak egun horretara iritsi arte eman diren pausoen bilduma

zabala egin zuen. Ondoren, estatutuei buruzko hainbat xehetasun aurkeztu zituen eta azkenik zuzendaritza batzordea osatuko duten pertsonen zerrenda aurkeztu zuen.

Proposamen guztiak ahobatez onartu ziren bertaratu ziren 40 pertsonen aldetik. Ezin ahaztu elkarte honen partaide izateko 60 pertsonen izena eman dutela. Kontuan izanik Ezkio-Itsasok 540 biztanle dituela, partaidetza izugarria azaltzen du

kultur elkarteak bere sorrera garaian.

Elkartearen helburuei dagokienez, herrian kultura, bere zentzurik zabalenean, suspertzeko ahal duen guztia egitea izango da elkarte honen xedea. Besteak beste, ondare materiala berreskuratu, zaindu eta kudeatzea, sorreraren oinarri izan den Igartu Beiti baserriari dagokiona bereziki.

Helburu orokorrak hauek badira, praktikari dagokio-

nez, 'Yartu' kultur elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ezkio-Itsasoko Udalak maiatzean antolatuko duten 'Zaharkinak' erakusketan izango du lanari ekiteko aukera.

Lerro hauen bidez, Elkarteak osatzen duten partaide guztiak zoriondu nahi ditugu eta bide batez etorkizunean izango duten lan guztiari aurre egiteko animoak luzatu.

Joseba Etxezarreta

IDIAZABAL

Etxegarate bikoizteko proiektuan aldaketak

Gipuzkoako Diputazioa Etxegarate bikoizteko proiektuan aldaketak egitea aztertzen ari da. Lanak esku-ratzeko lehiaketara aurkeztutako enpresek egindako proposamenetatik, bi hartu ditu kontuan Diputazioak. Lehena, errebuelta txikitik Etxegarate gainera bi nora-bidetan tunelak egitea. Proiektuak tunel bakarra aurrikusten du Donostiako norabidean. Bigarren aldaketa, Ursuaran eta Idiazabal lotzeko bide berria egitea. Hasierako proiektuan Ursuaran parean rotunda bat egitea aurrikusita dago.

Aldaketa hauek egin ala ez erabaki aurretik Udalak Etxegarate eta Ursuarango herritarren iritzia kontuan hartzeko eskatu dio Diputazioari. Aldi baterako lau enpresa talde (UTE) aurkeztu dira Etxegarate bikoizteko lehiaketara. Laurak, bikoizketa lanak proiektuan jarrita baino merkeago eta azkarra-go egitea eskainia dute.

Korrika

Asteazkenean pasatu zen Korrikaren 11. edizioa Idiazabaldik. Iñautiko rotondan hartu zuen lekukoa Idiaza-

balek eta ordu erdi eskas egin zuen Korrikak herrian. Udaletxeak, Herri Eskolako Guraso elkarteak, Eusko Alkartasunak, Herri Batasunak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak emandako diruarekin erosi ziren herriko kilometroak.

Korrikaren alde herrian egindako ekitaldiek harrera ona izan zuten Korrika Batzordearen esanetan. Mus txapelketa azkarrean 30 bikotek hartu zuten parte. Irabazleak Gorka Egialde eta Aitor Urrestarazu izan ziren. Herriko artisten jaialdiak eta igandeko ekitaldiek utzitakoaren balantze baikorra egin du herriko Korrika Batzordeak.

Festetako bideoa

Aurtengo Sanblasetako bideoa gaur, ostirala, emango da Kultur Etxean. Bi emanaldi izango dira, lehena neska-mutikoentzat 17:30ean eta bigarren helduentzat 19:30ean.

Immersoren bidaiak

65 urtetik gorakoentzat bidaiak antolatu ditu Immersok. 65 urtetik gorakoek, Gizarte Segurantzak jubilatzen pentsiodunek, edota 60 urte



Lanak martxa onean

Futbol-zelai berriaren kokagunea begibistikoa da. Arizkorreta parean makinak lanean ari dira duela aste batzutatik. Uztailerako espero da lanak bukatuta egotea. Udalak bien birtartean Gipuzkoako Diputazioarekin hartuemanetan ari da zelai berrirako diru-laguntza lortzeko. Hasierako proiektuak 179 milioiko aurrekontua du, Diputazioaren laguntza lortu ezean, hasierako proiektua aurrekontu txikiagora moldatu beharko da.

izanda Gizarte Segurantzako beste edozein pentsio jasotzen dutenek dute bidaietan parte hartzeko aukera. Balear eta Kanariar uharteak, Portugal, Galizia eta Asturiasa joateko modua eskaintzen du Immersok. Informazio gehiago lortu edota izena emateko Udaletxera jo behar da apirilaren 7a baino lehen.

Gazta eguna

Gazta Batzordea Gaztaren bigarren eguna antolatzen ari da maiatzaren bigarren egunerako. Iazkoari segida emanez gaztaia dastatu eta erosteko aukera izango da egun horretan. Apirilaren 15ean, osteguna, arratsaldeko 6,30etan egingo da hurrengo bilera.

Xabier Urteaga

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

ANGEL IMAZ

**PINTURA
eta
PAPERGINTZA**



☎ 943 18 70 49
Ondramuño etxea IDIAZABAL



a u l i a

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

AMEBI



Sagardotegia

**Martxoaren 27ko
gaua trikitilariekin
alaitua izango da**

☎ 943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

SEGURA

Zuhaitz enbor erakusketa

Iparra-Hegoarako antolatu zen erakusketa zabalik egongo da Zurbano kaleko 12an, martxoaren 27 eta 28an 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Ostegun santuan 16:00etatik 19:00etara eta ostiralean 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Pintura txapelketa

Iparra-Hegoako lehiaketan parte hartu zuten 20 lanak herriko tabernetan daude ikusgai eta salgai. Irabazlea Mikel Araiztegi bergarra izan zen (Antolatzaileei donatu zien koadroa). 2. Julio Gomez leioarra, 3. Philippe Teyseyre urruñarra. Akzesita Iker Dorronsoro beasaindarrarentzat izan zen.

Jauregiren eskulturak

Kutxak Jesus Jauregiri erosi berria dion 'Ilargi amandearen maskara' eskultura Kutxak Garibai kalean duen egoitzak egongo da ikusgai apirilean. Irizar kooperatibak ere erositako beste lan bat.

Hazi bedeinkatzea

Apirilaren 18an, 12:30ean izango da Santa Engrazi ermittan aurtengo ur eta hazi bedeinkatzea. Hau, meza aurretik egingo da elizatarian eta mezaren ondoren Udalaren laguntzaz eskainitako haiaiketako. Haziak xextoetan eramatea eskatzen da.

Errejonialak lider

Asteburuko emaitzak: **Errejonialak:** Segura 1-1 Euskalduna. **Jubenilak:** Mariño 1-4 Segura. **Kadeteak:** Kopa: Behobia 1-8 Aizkorri. **Infantilak:** Bergara 1-1 Aizkorri. **Asteburuan etxean:** **Kadeteak:** Aizkorri-Lagun Onak, zapatuan, 11:30ean. **Jubenilak:** Segura-Koskas,

Aste Santurako prestaketetan

Hainbat herritar aspalditxotik ari da Aste Santuko antolaketa lanetan. Soldadu erromatarrek astean bitan ari dira korneta entsaioetan, korukoak egunero, egitaraua zehaztua dago eta propaganda ere aterata da. ETBk zuzenean emateko asmoa du ostegun nahiz ostiraleko elizkizunak, prozesioak eta pazkoa eguneko meza nagusia.

Santu jartzea

Bihar, martxoak 27, izango da santu jartze eguna. Gizonen lana andak jaitea eta santuak bertan lotzea izaten da eta emakumezkoena hauek jantzea eta apaintzea. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte lanera.

Soldadu berriak

Iñaki Artola eta Xabier Ormazabalaren ordezkari, Oskar Terra eta Eritz Intxausti izango

16:00etan.

Ondarroara errejonialekin. Asteburu honetan jokatuko duten partidurako autobusa antolatu dute zuzendari-tzakoek.

Labur-labur

● **Bola.** Gipuzkoako txapelketa bukatzeko 3 saioen faltan 2. postuan dago Antonio Agirre.

● **Pelota.** Zutik torneoan ari diren pelotari herritar guztiak sailkatuta, Intxaurrendoko txapelketan ari dira. Herri arteko txapelketa apirilaren 25ean da hastekoa.

● **II. Mus txapelketa.** Bihar, martxoak 27, preso eta errefuxiatuen alde Elorripen 16:00etan. Bikoteko 1.200 pezetan. Irabazleentzat afaria eta sariak guztientzat.

● **Odol ematea.** Apirilaren 17an, arratsaldeko 5etatik aurrera osasun etxean.

● **San Joanak.** Aurtengo



1988ko argazkia. Santu jartzen aritu ondoren sakristian ateratakoa.

dira lehen aldiz soldadu erromatar aterako direnak.

San Migel

Ostiral Santu egunez San Migel jantziko dena Antonkaleneko Agustin Agirre izango da. Ohiturak agintzen duenez, egun berean, sermolaria eta aguazilarekin batera alkatearen etxean izango du

bazkaria.

Erakusketa eta informazio bulegoa

Ostegun eta ostiral santu egunez, eguerdi eta arratsalde partean zabalik egongo dira kultur etxean.

Informazioa eta egitaraua 13. orrialdean.

festak ekainaren 18, 19, 20, 23, 24, 25, 26 eta 27an izango dira.

● **Ardixarre.** Teilatua eta fatxada konponduko dizkio-

te. 25 milioi inguruko aurrekontua du eta San Joanak alderako bukatzea espero da.

Joseba Telleria



Antolatzaile eta tabernarien artean (epaimahaikoak) Pako Muñoa eta Jexux Mari Intxausti Txoritegiko irabazleak.

Korrikako tortilaren irabazleak

Martxoaren 21eko elkarteen arteko patata tortila txapelketa Txoritegi elkarteak irabazi zuen. Herritarren artekoa, Martxelino Elorzak, Tomax Berasategik eta Rafael Gerrikok osatutako taldeak. Elkartekoei, Joxe Mari Telleriak egindako oroigarria eta taldeari herri eskolakoek egindakoa eman zitzaion. Herenegun herritik pasa zen Korrikaren kilometro erosleak Gazte Asanblada, Kendu, Elorri, Zopajale eta Udala izan ziren.

LAZKAO
IX. Gerriko Ikerlan Sariketa abian


Dagoeneko klasikoa bihurtu zaigu Goierriko kulturgingintzan, Lazkaon antolatzen den sariketa berezi hau. Aldian-aldean, Goierri buzurko ikerlanak bultzatzeko sortu zen sariketa honek, bere emaitza bikainak erakusten ditu. Esan bezala, martxan dugu beraz, bederatzigarren edizioa ere, eta parte hartu nahi duzuen guztiek hemen dituzue bertan eskuhartzeko xehetasun guztiak.

Lehiaketa honen oinarriak ematerako orduan, lehenengo aipatu beharrekoa zera da, edonork parte hartu dezakela bertan, inongo adin eta jatorri mugarik gabe, hau da, goierritarrez gain mundu osoko edozeinek parte hartu dezake. Mugak halere, gaiaren eta hizkuntzaren aldetik datoz. Gaiari dagokionez, Goierri dagokion edozein zientzi alorretakoa izan daiteke eta lanak, euskaraz idatziak egon beharko dute, noski. Lanak originalak izan be-



harko dute, hau da, beste inon argitaratu eta saritu ga-beak.

Ikerlanen luzera, gutxienez 100 Din A-4koa eta orrialdeko 2000koa izango da. Konputagailuz eta biko tarteaz idatziak izango dira; ikerlanak zein programatan eginak dauden adieraztea ere eskatzen da. Ikerlan guztiek, izenburua eta lema izango dute bistan. Aparteko kartazal batean, bistan lanaren izenburua eta lema adierazi beharko dira eta barruan, berriz, gainontzeko datu pertsonal guztiak konputagailuz idatziak.

Ikerlanak aurkezteko epea, 2000.eko martxoaren 17an, arratsaldeko 8etan amaituko da, eta ikerlan originalaz gain beste hiru kopia helerazi beharko dira helbide honetara:

Goierriko Euskal Eskola
Kultur Elkartea

**IX. Gerriko Ikerlan
Sariketa**

Elosegi 16, 1.a ezker
20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

Euskal Herria (Europa)

Lehiaketaren antolatzaileak, Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea direnez, beraien aukeratuko dute epaimahaia aurkeztutako gaien arabera. Datorren urteko maiatzaren amaiera aldera jakinaraziko dira sariketa- ren irabazleak. Honako sariak izango dituzte trukean. Lehenak, 500.000 pta. eta ikur artistikoa eta bigarrenak, 300.000 pta. eta ikur artistikoa. Lan sarituak argitaratzeko eskubidea erakunde antolatzaileen esku geratuko da. Argibide gehiago nahi izanez gero, 943-160282 telefonora deituz edo 943-887971 faxera eskatuz lortu ahal izango duzue.

Apirileko kulturaldia

Hemen doakizue labur-labur Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea eta Maizpidek antolatutako

kulturaldiaren egutegia.

Apirilaren 19an, astelehena, Antzarren bertso paperen aurkezpena eta banaketa. Egun berean, baina, gaueko 9etan, bertso-afaria Maizpide euskaltegian.

Apirilaren 20an, ikusentzunezkoa Maizpideko zine aretoan, gaueko 9etan. Jabier Fernandezek 'Ordesako xarma' aurkeztuko digu.

Apirilaren 21ean, asteazkena, 'Dieta mediterranea' izenburupean, hitzaldia eskeiniko dute Uranga eta Lorezok. Hitzaldi hau Maizpiden izango da arratsaldeko hiruretan. Egun berean eta leku berean, Beasaingo Antzerki Tailerrak 'Hitz egin dezagun sexuaz' antzezlan eskainiko du gaueko 9etan.

Apirilaren 22an, eranskailu lehiaketaren sari banaketa.

Apirilaren 23an, Mikel Mendizabal eta Goierriko bertso-eskolako ikasleek bertso-saioa eskainiko dute arratsaldeko 3etan San Benito Ikastolan. Egun berean 8. Gerriko Ikerlan Sariketan sarituak izan ziren liburuen aurkezpena izango da Udaltelean arratsaldeko 8etan.

Hauek guztiez gain ipuin kontaketa izango dira bi ikastetxeetan eta baita argazki erakusketa ere Gerriko tabernan.

Urko Irastorza

**Ezkontza erreportaiak
%25eko
DESKONTUAREKIN**

**LAZKAO
ARGAZKI**

ARESO kalea, 7 ☎ 943 88 96 86

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

BEASAIN

Aurresku eta Doinu Zaharren dantza lehiaketa

Bihar eta etzi, martxoak 27 eta 28, Aurresku eta Doinu Zaharren dantza lehiaketa ospatuko da Usurbe Antzokian. Aurtzaka dantza taldeak Udalaren laguntzarekin antolatuta, 1999koa 8. edizioa izango da. Beste urte batzuetan ez bezala, aurtan bi egunetan bai neskak eta bai mutilak arituko dira. Antolatzaileek lehiaketa biziagoa eta arinagoa izan dadin egin dute aldaketa hori. Biharko saioa arratsaldeko 4etan hasiko da eta 12 eta 15 urte bitarteko 22 gaztetxok hartuko dute parte. Igandekoa, berriz, goizez jokatu da, eta 11etan emango diote hasiera. 7 eta 11 urte bitarteko 45 haurrek hartuko dute parte bertan.

Parte hartzen duten neskak Doinu Zaharren lehiaketan osatzen duten hiru dantza eskaini beharko dituzte. Mutilek Aurresku lehiaketan arituko dira. Gaztetxoek Agurra eta Alpagatarena (eskualdatzeko soina) dantzatzeaz gain, Desafioa ere dantzatu beharko dute. Haurren mailan, ordea, ez da Desafioa dantzatu beharrik izango. Euskal herriko txapelketaren barruko ligaxkaren barruan kokatzen dira Beasaingo bi txapelketa hauek.

Udaberri Gaztea

Aurreko astean hasi ziren ekitaldien jarraipena izango du gaurtik aurrera Udaberri Gazteak. Arratsaldeko 7,30etan 'Bulimia, anorexia eta edertasuna' izenburuarekin hitzaldia egingo da Udal Euskaltegian. Bertan Anorexiaren Euskal Elkartearen ki-deak hartuko dute parte.

Bihar, martxoak 27, gazteenkanaren bigarren zatia jokatu da Loinazko San Martin enparantzan. Gauean



Zuhaitz eguna

Martxoaren 18an Zuhaitz eguna ospatu zen Udalak antolatuta. Urtero Beasaingo ikastetxe batek izaten du egun honetan zaborteia bisitatu eta bertan zuhaitzak landatzeko aukera. Aurtan Loinazperen txanda izan da eta astigarrek eta haritzak landatu zituzten.

23:00etan, dohaneko kontzertua izango da Antzizar kiroldegian, Amparanoia, Bide Hertzean eta Urtz taldeekin.

Beasaingo Saria argazki lehiaketa

Argizpi argazkizale elkarteak eta Aizkorri mendizale elkarteak Beasaingo Saria XXXV. Argazki Lehiaketa antolatu dute. Bi izango dira aurtan lehiaketaren gaiak: Librea eta Mendia. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte, gehienez bost argazkirekin, eta lanak apirilaren 23a bai-

no lehen bidali beharko dira Aizkorri elkartera (Beasaingo Arana kaleko 2.enera) edo Argizpiria (Beasaingo 13. posta-kutxatila).

Zuri-beltzean edo koloreetan aurkeztu daitezke lanak. Teknika librea da. Argazki bakoitza 30 x 40ko kartulina batez sendotuta egon beharko da, eta atzealdean izenburua, datu pertsonalak eta telefonoa idatzi beharko dira (elkarte bateko kide izanez gero ere adierazi beharko da). Sari banaketa herriko festetan, maiatzaren 16an, egingo da eguerdian. Lehenengo saria 25.000 pezeta

Loinatz Jaiak zehazten joaz

Loinatz Jaietarako elkarteak zenbait bilera egin dituzte dagoneko, eta erabaki batzuk hartu dituzte. Horietako bat danborradari dagokioa: aurtan megafonia elektrikoa erabiliko da. Era horretan, musika piztu eta itzaltzeko aukera egongo da tokiaren arabera, eta une bakoitzean danborrak pasatzen ari diren lekuetan bakarrik entzungo da musika. Horrela herriko bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien sortu nahi zaizkie, eta kable mozketak ere eragotzi nahi dira. Danborrada Ezkiaga auzotik atera eta Indar lantegira arte joango da aurtan, eta beste urteetan bezala elkarteek ez dute kantinerak ateratzea beharrezkotzat izango. Karroza egitea Loinatz elkarteari suertatu zaio aurtan. Mozorro egunean, ordea, ez da desfilerik egingo. Bestalde, sukaldaritza lehiaketa Loinazko San Martin enparantzan egitea erabaki zuten elkarteek.



Euskararen Astea La Salle - San Jose ikastetxean

Martxoaren 1etik 5era Euskararen Astea ospatu zuten La Salle-San Jose ikastetxean. Potolotxo maskotaren planetan, euskara entzunez elikatzen direnez, euskararen astea antolatu zuten, Potsolotxo indarberritzeko. Euskaraz bizi-tzera bultzatzen zuten kartelak egin zituzten, herri-kirolak, filmea, antzerkia, ipuin-kontalariak, kantuak, txistekak, antzarraren jokoa... denetarik izan zuten. Potxolotxo maskota gustora joan omen zen bere etxera.

eta garaikurra izango dira. Saritutako lanak erakusgai egongo dira Usurbe Antzokian herriko jaietan.

Musika Eskolan matrikulaketa

1966ko Plangintzako Maila Ertaineko ikasle libreentzako matrikulazio epea gaur bertan, martxoak 26, bukatuko da. Bulegoko ordutegiak: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Kronikarako oharra

Kronikarako oharren bat eman nahi duenak San Inazio kaleko Erosle Hiru dendan utz dezake.

Jon Ordoñez

Jose Otegi atabalarari eta Nikolas Iturrioz txistulariari omenaldia Itsasondon

Aurten 50 urte betetzen dira Jose Otegi eta Nikolas Iturrioz itsasondoarrak txistua eta atabala jotzen ari direla. Urteurren berezi hau ospatzeko, martxoaren 28an omenaldia jasoko dute Itsasondoko Udalaren eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearen Gipuzkoako Ordezkaritzaren eskutik, beraien jaioterrian, Itsasondon.

1949. urtean Legorretan jo zuten lehenengo aldiz atabala eta txistua jendaurrean Jose Otegik eta Nikolas Iturriozek, 13-15 urte zituztela. Harrezkeroztik nork daki zenbat aldiz errepikatu den eszena berdina!

Itsasondon bertan eman zituzten musikarako lehen urratsak, Don Jazinto apai-zari esker. Herrian ikasitakoa hobetzeko Beasainera jo zuten. Txanbo Aranburu eta Don Kaletano izan zituzten irakasleak. Nikolasek txistua ikasi zuen eta Josek atabala.

Nikolas Beasaingo udal bandako txistulari izan zen hainbat urtean eta herri askotan jotzeko aukera izan zuen. Txistulari izatez gain, herriko parrokan organista ere bada. Bere seme eta bi-lobei musikarako grina pasatu die eta omenaldi eguneko txistu kontzertua bere se-



Omenaldi eguneko egitaraua

9:30ean: Txistularien diana.

10:45ean: Nikolas Iturrioz eta Jose Otegiri ongi-etorria emanez, Beitiko iturritik elizaraino lagundu.

11:00etan: Meza nagusia. Bertan herriko koruak eta txistulariek jardungo dute.

12:30ean: Kontzertua eliz atarian: bertsolariak; orkestra, txistulariak eta metalekoak; eta dantzariak (Edu Muruamendi, Eli Alberdi, Aiert Beobide eta Iurre Aranburu).

14:30ean: Bazkaria herriko pilotalekuan.

Txistu kontzertua

Jexus Mari Iturriozen zuzendaritzapean 11 pieza joko dituzte, Itsasondoko eta Gipuzkoako txistulariek: Bruno Imazen 'Erromerian'; Bittor Zubizarretaren 'Txistulariak'; Jose Mari Iparragirreraren 'Hiru kanta'; euskal dantza zaharra 'Gizon dantza'; euskal danbolin soina 'Segurako alborada'; Etxaun-Irurikoaren 'Goizian argi hastian' eta 'Agur Xiberua'; herrikoietan 'Baltza', 'Fandangoa eta Habanera Arin-arina' eta 'Ixil-ixilik'; Jose Mari Iparragirreraren 'Gernikako Arbola' eta amaitzeko beste herrikoi bat, 'Agur jaunak'.

me Jexus Marik zuzenduko du. Josek atabala jotzen ikasi zuen eta Itsasondon atabalaririk falta ez dadin, gazteei bere ofizioa irakasten ari da.

Hasiera hartan diru mailan zeuden arazoak. Itsasondoko Kantillape aldizkarian egindako elkarrizketan adierazi dutenez, "Don Jazintori eskerrak! Harrek ordaindu

zigun dena (txistuak, atabalak) eta gero guk jotzen genuen eran.. instrumentuak pagatu beharra! Kobratzen zena instrumentuak ordaintzeko izaten zen".

Herrian egun berezi asko izaten ziren txistua jotzeko: San Luis, luistarren egunean prozesioa izaten zen. Pazko-etan, Eguberrietan, Santa

Zezilia egunean, Korpuse-tan, San Ignazio egunean, San Ignazio martxa joaz, Urkian Santa Kruzetan... Baina heritik kanpo makina bat emanaldi emanak dira: Altzagan, Ikaztegieta, Ordizian, Lakuntzan, Hendaietan... "Orduan oso garai diferenteak ziren. Soinujole bat, saxofoijole bat eta txistulariak osatzen zuten herriko banda eta goizeko seieta diana jotzen genuen. Alboradak ere egiten genituen. Usadioa zen, etxez etxe jotzen joatea eta horrela diru bat biltzen genuen. Festetan berriz, lehen zegoen kioskoan jotzen genuen. Musikoek jotzen zuten lau edo bost pieza eta atsedena hartzen zutenean, txistularien txanda zetorren... Arratsalde osoa horrela joaten zen gauerarte", gogoratu dute.

Gaur egungo txistua lehenagokoak baino errazago jotzen omen dira. "Lehenagokoek hots gehiago zuten, askoz ere gehiago, bibrazio handiagoa zuten. Teknikak ere aldatu egin dira. Orain Donostian, urtero bi edo hiru aldiz, Konstituzio plazan, 120 txistulari elkartzen dira koroarekin batera, tronpetarekin, pianoarekin... akoplamenduak eginda dauzkate. Hori orkestra bat da. Oso gauza politak egiten ari dira txistuarekin, baina herriko usadioa galdu egin da".

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2

BEASAIN



1967ko jaunartzea Zaldibian

1967an Jauna hartu zuten zaldibitarak dira argazkikoak. Urtea ziuurra ez bada ere, argazkia utzi digutenek garai hori izango zela jotzen dute. **Ezkerretik eskubira:** Gerardo Jabier Garmendia 'Mozo', Jose Inazio Elizegi, Anizeto Unanua, Jose Ramon Arrese eta Frantzisko Jabier Garmendia.

gazte 99
abialdia
martxoak 20 - apirilak 3

gazte 99
abialdia
independentzia
martxoak 20 - apirilak 3

20
gazte 20 urtez
bidea zabaltzen

Apirilaren 1etik 3ra
Donibane Lohitzunetik
Donostiara

Ibilaldian, ekitaldi politikoan eta
kontzertuan parte hartzeko bonoak
Goierriko herrikoetan salgai
a p i r i l a k 3

ekitaldi
politikoa
eta
musikak 20 urtez
bidea zabaltzen
kontzertua

anoetako
belodromoan



Foto IBILTARIA

KALITATERIK HOBERENeko
ERREBELATUEKIN

Argazki
albuma

3
tarieta



30x45 poster
handitzea



B&C kamiseta



Perle Cardin
ordularia



Perle Cardin
bidaia poltsa



Kodak
Aqua-Sports
kamara



Kodak
Fun Flash
kamara



Perle Cardin
motxila

A zer
opariak!



Errebelatuekin jasoko dituzuen
txartelak gorde.

Eta aukeratu opari hauetan nahi duzuna.

GEMA M. ARRUGAETA

Argazkilari profesionala

Elkano, 8 (Asto Kale)

DAVID MONTERO ARRUGAETA

Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

☎/faxa: 943 16 22 64

ORDIZIA

Publizitaterik onena, gure bezeroak

GONARTE
ENMARCACION

Tel. eta Faxa 943 161871
Urdaneta, 52 ORDIZIA

Carpintería
onzález
Enmarcación

Nekolalde, 22 BEASAIN ☎ 943 882388
Txindoki Pol., 3-3 ORDIZIA ☎ 943 885218



*Primerako kalitateaz gain,
Aste Santuko **OPORRETA**KO
karreteak errebelatzean
OPARI bat eramango duzu*

FOTOETNE

FUJIFILM-en kalitate kontrolarekin